

Anatoliako eta Hego Kaukasoko toponimia

Anatoliako eta Transkaukasiako —hots, Hego Kaukasoko— leku-izen geografiko, politiko eta historiko nagusien euskarazko ordainak ematea da arau honen helburua. Nolanahi ere, Europako toponimia fisiko nahiz politikoan arautzeko orduan erabilitako xehetasun-maila ez da erabili, leku horiek guregandik eta gure kulturatik eta historiatik urrutiago baitaude Europakoak baino. Hala ere, historia aberatsa edota gatazkatsua izan dutenez, leku horietako askoren exonimoak sortu dira gure inguruko hizkuntzetan, eta beharrezkoa da irizpideak lantzea eta oinarrizko zerrendak ematea euskara estandarerrako, zenbaitetan gure inguruko hizkuntzetan leku-izen horien grafia ez baitator bat. Horretaz gainera, gutxitan bada ere, inguru horietako leku-izenen batek edo bestek badu tradizioa euskaraz, Biblian agertzen direlako, besterik ez bada ere. Halakoetan, komeni da tradizioari eustea.

Nolanahi ere, kanpoko leku-izenak euskaraz idazteko irizpideak emateko orduan, tokian tokiko grafia normalizatua atxikitzea da irizpide nagusia, Nazio Batuen Erakundeak gomendatzen duen moduan. Eta irizpide orokor hori erabili da arau honetan ere, gure inguruko hizkuntzetan egiten den modu berean, jatorrizko grafia aldatzeko bestelako arrazoirik ez dagoenean. Hori horrela izanik, ulertu behar da arau honetan agertzen ez diren Anatoliako eta Kaukasiako gainerako leku-izenak (arauan nagusi-nagusiak edo dena delakoagatik jatorrizkoan ez bezala idaztekoak direnak besterik ez dira sartu), bestelako arrazoirik ez badago, jatorrizkoan bezala idaztekoak direla (leku-izenon jatorrizko hizkuntza latindar alfabetoz idazten denean).

Gaurko Turkia, Azerbaijan, Georgia eta Armenia estatuetako leku-izen nagusiak jasotzen ditu arau honek.

Turkiako eta Azerbaijango toponimiari dagokionez, kontuan izan behar da turkiera nahiz azerbaijanera hizkuntza ahaideak direla eta, gaur egun, latindar alfabetoz idazten direla. Alde horretatik, ez dago transkripzio- eta transliterazio-arazorik. Nolanahi ere, grafema batzuekin zenbait gorabehera gertatzen dira. Horregatik, toponimo-zerrendarekin batera, eta haren osagarri, azalpen bat erantsi zaio arauari, irizpideak zehaztearren.

Georgian eta Armenian, ordea, bestelakoa da egoera. Bi estatu horietako hizkuntzak ez dira latindar alfabetoz idazten. Bakoitzak bere alfabetoa du: georgieraren alfabetoa eta armenieraren alfabetoa. Horregatik, bi hizkuntza horien transkripzioaren aztertu eta ebatzi egin behar izan da (Europako toponimia lantzean, alfabeto zirilikoaren arazoari aurre egin behar izan zitzaion bezala): aparteko beste arau batean zehazten dira bi hizkuntza horiekikoak¹. Arau honetan, leku-izenen zerrenda besterik ez dago.

Izendapen bikoitzak

Batzuetan, eskualdearen bi izendapen (edo hiru) ageri dira euskarazko zerrendan. Bi izendapenak barra etzanez bereizita daude, <A/B>, eta biak maila berean onartzen dira. Hala ere, bigarren izendapenean zehaztapen ageri ohi da, adierazteko izendapen hori antzinakoa dela —eta, horrenbestez, testuinguru historiko jakin batzuetan erabiltzeko baino ez dela—, edo esparru murriztagoko izendapena dela. Adibidez:

Diyarbakir / Amed (kurduerazko izena) / antzinako izena: **Amida**.

Zerrendan, 57 leku-izen ageri dira guztira. Bakoitzean, euskarazko izenaz gainera, jatorrizko izena, gaztelaniazko izena, frantsesezko izena eta ingelesezko izena ematen dira.

¹ Ikus Euskaltzaindiaren 161 araua: Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak

Turkierari buruzko oharra

Turkieraren alfabetoa

Letra larriak																												
A	B	C	Ç	D	E	F	G	Ğ	H	İ	ı	J	K	L	M	N	O	Ö	P	R	S	Ş	T	U	Ü	V	Y	Z
Letra xeheak																												
a	b	c	ç	d	e	f	g	ğ	h	ı	ı	j	k	l	m	n	o	ö	p	r	s	ş	t	u	ü	v	y	z

Turkiera latindar alfabetoarekin idazten da, baina turkiar alfabetoko < ğ >, < ı > eta < ş > letrak ez daude eskura Europako mendebaldean erabiltzen diren ordenagailu-teklaturatan. Jakinarazi beharrekoa da turkiera idazteko latindar alfabetoan < ı > letraren bi aldaera daudela: batak puntua du gainean (minuskulaz eta maiuskulaz), eta besteak ez (ez minuskulan eta ez maiuskulan ere):

< İ, ı > letra [w] fonemari dagokio. Ez du baliokiderik euskaraz. Frantsesezko “deux” hitzaren “eu” ahoskeraren antzeko zerbait da.

< Ĭ, ı > letra [i] fonemari dagokio. Euskarazko i letra bezala ahoskatzen da.

< Ğ > letra , [ɣ] fonemari dagokio; < g > bigun bat da.

< Ş > letra [ʃ] fonemari dagokio; euskarazko < x > letra bezala ahoskatzen da.

Europako mendebaldean erabiltzen diren teklaturatan < ğ >, < ı > eta < ş > letrak tekletan ez daudenez eta gure kultura-ingurunean arrotzak gertatzen direnez, onargarria da letra horien ordez < g >, < ı > eta < s > sinplifikazioak egitea testu ez-espezializatuetan eta dibulgazio-testuetan, baina idazkera jaso zainduko testu espezializatuetan (adibidez, entziklopedietan) komeni da jatorrizkoari atxikitzea.

Adibidez, Turkiako lehen ministroaren izena *Recep Tayyip Erdoğan* da, baina komunikabideetan (euskaraz, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz...) *Recep Tayyip Erdogan* idatzita agertu ohi da, hau da, sinplifikazioa eginda. Eta Turkiako *Diyarbakır* hiria, halaber, *Diyarbakir* idazten da egunkarietan, sinplifikaturik (edo, maiz, idazleak berak ez daki sinplifikazioa egiten ari denik).

Arauan agertzen diren toponimoei dagokienez, < ı > / < i > grafema-bereizketa ez da kontuan hartu Turkiako toponimoen euskarazko grafia arautzeko orduan, berez testu espezializatuetan hala egin behar litzatekeela onartuta ere. Hau da, guztiak < i > idatzi dira arauan euskarazko zutabeen (*Izmir*, *Iskenderum*, *Diyarbakir*), eta ez turkieraz bezala (*İzmir*, *İskenderum*, *Diyarbakır*). Azkenik, *Istanbul* idatzi da, baina ez sinplifikazioa eginda (turkieraz *İstanbul* da), baizik eta tradiziodun formatzat hartu delako.

Azerbaijanerari buruzko oharra

Azerbaijanen, 1929 arte, arabiar alfabetoa besterik ez zen erabili; 1929 eta 1938 artean, latindar alfabetoa erabili zen, baina ez gaur egun erabiltzen den moduan. 1929tik 1991ra alfabeto zirilikoa erabili zen. Eta 1991z geroztik, latindar alfabetora aldatzeko trantsizioa gauzatzen ari da, baina poliki doa. Bestalde, Errusiako azeriarrek zirilikoa erabiltzen jarraitzen dute, eta Irango azeriarrek arabiar alfabetoa erabiltzen jarraitzen dute.

Egoera horren ondorioz, ez da harrizkoa erdara nagusietan (ingelesa, frantsesa, gaztelania...) arabieratik eta zirilikotik transkribatutako izenak nagusi izatea gaur egun, eta latindar alfabetoa erabiltzen duten gaur egungo izen ofizialek nazioartean oraindik erabat nagusi ez izatea, edo, iturrien arabera, hizkuntzaren beraren barnean grafia-aldaerak aurkitzea.

Euskaraz, Azerbaijango leku-izenen idazkerari dagokionez tradizio luzerik ez dugunez, oro har ez dugu aitzakiarik gaur egungo latindar alfabeto ofiziala ez erabiltzeko, hau da, arabiar alfabetotik edo alfabeto zirilikotik transkribatutako formak baztertu beharko genituzke. Hori teorikoki aukerarik onena bada ere, ez da beti hain erraza gauzatzen. Bi arazo daude:

1- Izen ofizialak vs. izen transkribatuak

Gaur egungo grafia ofiziala hartuz gero, gertatuko litzateke, kasu batzuetan, grafia hori bat ez etortzea gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez erabiltzen den formarekin; horrenbestez, euskara inguruko erdara nagusien ildotik aterako litzateke, eta horrek arazoak sortuko lituzke toponimoak ezartzeko eta estandarizatzeko orduan, batez ere kontuan izanda hango toponimiak oso erabilera-maiztasun txikia duela gure artean, gatazkak direla-eta komunikabideetan noizean behin agertzen diren lauzpabost izen kenduta ez baita batere ohikoa Azerbaijango toponimoak erabili beharra gertatzea.

2- Azerbaijaneraren alfabetoa

Azerbaijaneraren latindar alfabetoa turkieraren alfabetoa bezalakoa da, < ə >, < x > eta < q > letretan izan ezik, letra horiek adierazten dituzten fonemak ez baititu turkierak. Berezioki aipagarria da < ə > letraren kasua. 1991ko abenduaren 25ean latindar alfabetoa ezarri zenean Azerbaijanen, < ä > grafema hautatu zen [æ] fonema adierazteko. Hala ere, 1992ko maiatzaren

16an, < ə > grafemaz ordeztu zen, 1929-1991 bitartean < ə > grafema erabilia baitzen, bai latindar alfabetoan, bai alfabeto zirilikoan, azerbaijaneraren bokalik arruntena adierazteko. Hau da alfabetoa:

Azerbaijaneraren alfabetoa

Letra larriak																															
A	B	C	Ç	D	E	Ə	F	G	Ğ	H	X	I	İ	J	K	Q	L	M	N	O	Ö	P	R	S	Ş	T	U	Ü	V	Y	Z
Letra xeheak																															
a	b	c	ç	d	e	ə	f	g	ğ	h	x	ı	İ	j	k	q	l	m	n	o	ö	p	r	s	ş	t	u	ü	v	y	z

< ə > letra [æ] fonemari dagokio. < a > bezalakoa da, baina ez hain irekia. Ingeleseko “cat” hitzaren “a” ahoskeraren antzeko zerbait da.

< ğ > letra , [ɣ] fonemari dagokio; < g > bigun bat da.

< ı > letra [w] fonemari dagokio. Ez du baliokiderik euskaraz. Frantsesezko “deux” hitzaren “eu” ahoskeraren antzeko zerbait da.

< i > letra [j] fonemari dagokio. Euskarazko < i > letra bezala ahoskatzen da.

< ş > letra [ʃ] fonemari dagokio; euskarazko < x > letra bezala ahoskatzen da.

Azerbaijaneraren latindar alfabetoa erabili nahi izanez gero, zenbait arazo praktiko gertatzen dira, < ə >, < ğ >, < ı > eta < ş > grafemak ez baitira erabiltzen gure alfabetoan eta gure inguruko erdaretako alfabetoetan; letra horiek ez daude Europako mendebaldean erabiltzen diren teklatuetan. Alde horretatik, onargarria da letra horien ordeztu < a >, < g >, < i > eta < s > letrak erabiltzea, sinplifikazioak egitea, testu ez-espezializatuetan eta dibulgazio-testuetan, baina idazkera jaso zainduko testu espezializatuetan (adibidez, entziklopedietan) komeni da jatorrizkoari atxikitzea.

Errealitate konplexu hori kontuan izanda ezarri dira irizpideak Azerbaijango toponimoak arautzeko orduan. Hona hemen irizpideok:

1- Izen gutxi batzuk jada finkatutzat joko dira, exonimotzat joko dira, eta jatorrizko forma ez da kontuan hartuko:

Nakhitxevan (eta ez azerbaijaneraren gaur egungo grafia: **Naxçıvan**)

Baku (eta ez azerbaijaneraren gaur egungo grafia: **Bakı**)

2- Gainerako izenetan, gaur egungo grafia ofiziala hobetsiko da (uste izatekoa da grafia hori nagusituko dela denborarekin; gainera, irizpide hori bat dator Nazio Batuen Erakundearen irizpide nagusiarekin). Adibidez:

Sumqayıt (eta ez errusieratik transkribatutako forma: **Sumgait**)

3- Gure alfabetoan eta gure kultura-inguruneko hizkuntzetan erabiltzen ez diren grafemak direla eta (<ə>, <ğ>, <ı> eta <ş>), ontzat emango da sinplifikazioak egitea dibulgazio-testu eta testu ez-espezializatuetan (<a>, <g>, <i> eta <s> idaztea, alegia), baina gainerako jatorrizko grafema guztiak emango dira arazorik ez dagoenean (adibidez, <ç>, <ö>, <ü>). Adibidez:

Gəncə (sinplifikatua: **Ganca**)

Abşeron (sinplifikatua: **Abseron**)

Xocalı (sinplifikatua: **Xocalı**)

Ağdaş (sinplifikatua: **Agdas**)

Xaçmaz (sinplifikatu gabe: **Xaçmaz**)

Hövsan (sinplifikatu gabe: **Hövsan**)

Göyçay (sinplifikatu gabe: **Göyçay**)

Arau honetako irizpideak eta zerrendak toki eta egun hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

2010eko abenduaren 17an, Zarautzen (Turkiako eta Azerbaijango toponimia).

2011ko urtarrilaren 28an onartua, Donostian (Georgiako toponimia).

2011ko otsailaren 25ean onartua, Bilbon (Armeniako toponimia).

(Exonomastika batzordeak 2011ko azaroaren 21ean paratua)

EUSKARA-ERDARAK ZERRENDA

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Abkhazia	აფხაზეთი [<i>Apkhazeti</i>] (georgiera) Аҧсны [<i>Apсны</i>] (abkhaziera)	Abjasia	Abkhazie	Abkhazia	Georgia
Abseron² [Abseron penintsula]	Abşeron (azerbaijanera)	Absherón / Apseronsk	Abşeron / Apchéron	Absheron	Azerbaijan
Adana	Adana (turkiera)	Adana	Adana	Adana	Turkia
Adjaria	აჭარა (აჭარის ავტონომიური რესპუბლიკა) (georgiera)	Adjaria / Ayaria	Adjarie (République autonome d'Adjarie)	Adjara (Autonomous Republic of Adjara)	Georgia
Anatolia	Anadolu (turkiera)	Anatolia	Anatolie	Anatolia	Turkia
Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora³	Ankara (turkiera)	Ankara / 1073- 1930 bitartean: Angora	Ankara / 1073- 1930 bitartean: Angora	Ankara / 1073- 1930 bitartean: Angora	Turkia
Antalya / antzinako izena: Atalia	Antalya (turkiera)	Antalya / antzinako izena: Adalia	Antalya / antzinako izena: Adalya/Adalia	Antalya /antzinako izena: Attalia	Turkia

² Testu espezializatuetan, *Abşeron* idatziko litzateke (eta ez *Abseron*), hori baita jatorrizko grafia.

³ Antzinako izena espezie-izenetan (*Angora ahuntz-arraza*, *Angora untxi-arraza*, *Angora katua*) eta eratorrietan (*Angora ilea*) gorde da.

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Antitaurus [Antitaurus mendiak]	Aladağlar (turkiera)	Antitauro	Anti-Taurus	Anti-Taurus	Turkia
Aragats [Aragats mendiak]	Արագած (armeniera)	Aragats, monte	Aragats, mont	Aragats, Mount	Armenia
Ararat [Ararat mendiak]	Ağrı Dağı (turkiera) Մասիս, Արարատ (armeniera) Çiyayê Agirî (kurduera)	Ararat, monte	Ararat, mont	Ararat, Mount	Turkia
Aras [Aras ibaia] / Araz [Araz ibaia] / Araxes [Araxes ibaia]	Aras (turkiera) Araz (azerbaijanera)	Aras / Araks / Arax / Araxi / Araxes / Araz	Araxe / Aras / Araks / Arax / Araxes / Araz	Aras / Araks / Arax / Araxi / Araxes / Araz / Yeraskh	Turkia
Artaxat / antzinako izena: Artaxata	Արտաշատ (armeniera) / antzinako izena: Ἀρτάξατα (grekoa)	Artashat / antzinako izena: Artaxata	Artashat / Ardachat/ antzinako izena: Artaxate	Artashat / antzinako izena: Artaxata	Armenia
Baku	Bakı (azerbaijanera)	Bakú	Bakou	Baku	Azerbaijan
Batumi	ბათუმი (georgiera)	Batumi	Batoumi	Batumi	Georgia
Bazardüzü [Bazardüzü mendiak]	Bazardüzü dağı	Bazardüzü,	Bazardüzü, mont	Bazardüzü,	Azerbaijan

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
	(azerbajjanera)	monte		Mount	
Bursa / antzinako izena: Prusa	Bursa (turkiera) / antzinako izena: Προύσα (grekoa)	Bursa / antzinako izenak: Prusa / Brusa	Bursa / antzinako izenak: Pruse / Brousse	Bursa/ antzinako izena: Prusa	Turkia
Diyarbakir ⁴ / Amed (kurduerazko izena) / antzinako izena: Amida	Diyarbakır (turkiera) Amed (kurduera)	Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Turkia
Ejmiatsin / ofizialki: Vagharxapat	Էջմիածին / ofizialki: Վաղարշապատ (armeniera)	Echmiadzin / Ejmiatsin / ofizialki: Vagharshapat	Etchmiadzin / ofizialki: Vagharchapat	Ejmiatsin / Echmiatsin / Echmiadzin / ofizialki: Vagharshapat	Armenia
Erevan	Երևան (armeniera)	Ereván	Erevan / Yerevan	Yerevan	Armenia
Esmirna / Izmir ⁵ Oharra: testuinguru historikoetan Esmirna da aukera bakarra	İzmir (turkiera)	Esmirna	Izmir / antzinako izena: Smyrne	Izmir / antzinako izena: Smyrna	Turkia
Gallipoli	Gelibolu (turkiera)	Gallípoli/Galípoli	Gallipoli	Gallipoli	Turkia
Ganca ⁶ / 1826-1917	Gəncə	Ganyá / 1826-	Gandja / 1826-	Ganja / 1826-	Azerbaijan

⁴ Testu espezializatuetan, *Diyarbakır* idatziko litzateke (eta ez *Diyarbakir*), hori baita jatorrizko grafia.

⁵ Testu espezializatuetan, *İzmir* idatziko litzateke (eta ez *Izmir*), hori baita jatorrizko grafia.

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	(azerbajjanera)	1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	1917 bitartean: Yelizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	
Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep (turkiera)	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Turkia
Giumri ⁷ / antzinako izena: Kumairi / 1840- 1924 bitartean: Alexandropol / 1924- 1990 bitartean: Leninakan	Գյումրի (armeniera)	Gyumri / antzinako izena: Koumari	Gyumri ou Gumri / antzinako izena: Kumairi	Gyumri / antzinako izena: Kumayri	Armenia
Gori	გორი (georgiera)	Gori	Gori	Gori	Georgia
Hego Osetia	სამხრეთ ოსეთი / ცხინვალის რეგიონი [<i>Samkhret Oseti / Tskhinvalis regioni</i>] (georgiera) Хуссар Ирыстон [<i>Khussar Iryston</i>] (osetiera)	Osetia del Sur	Ossétie du Sud	South Ossetia / Tskhinvali Region	Georgia
Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Հրազդան (armeniera)	Hrazdan / 1930- 59 bitartean:	Hrazdan / 1930- 59 bitartean:	Hrazdan / Razdan / 1930-	Armenia

⁶ <c> grafema euskarazko <tz> bezala ahoskatzen da: *Gantz*a. Testu espezializatuetan, *Gəncə* idatziko litzateke (eta ez *Ganca*), hori baita jatorrizko grafia.

⁷ <iu> diptongo gisa ahoskatzekoa da.

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
		Akhta	Akhta	59 bitartean: Akhta, Akhti, Akhtala	
Iskenderun ⁸ / antzinako izena: Alexandreta	iskenderun (turkiera)	Alejandreta / İskenderun	Alexandrette	iskenderun / antzinako izena: Alexandretta	Turkia
Istanbul / antzinako izenak: Konstantinopla / Bizantzio	İstanbul (turkiera)	Estambul / antzinako izenak: Constantinopla / Bizancio	Istanbul/ Istamboul / antzinako izenak: Constantinople / Byzance	Istanbul / antzinako izenak: Constantinople / Byzantium	Turkia
Iznik ⁹ / antzinako izena: Nizea	İznik (turkiera)	Nicea	Nicée	İznik / antzinako izena: Nicaea	Turkia
Karabakh Garaia	Լեռնային Ղարաբաղ / Արցախ [<i>Lernaiin Gharabagh</i>] (armeniera) Dağlıq Qarabağ / Yuxarı Qarabağ (azerbajjanera)	Nagorno Karabaj / Alto Karabaj	Haut-Karabagh / Haut-Karabakh	Nagorno- Karabakh	Armenia
Kars	Kars (turkiera) Կարս / Ղարս (armeniera)	Kars	Kars	Kars	Turkia

⁸ Testu espezializatuetan, *İskenderun* idatziko litzateke (eta ez *Iskenderun*), hori baita jatorrizko grafia.

⁹ Testu espezializatuetan, *İznik* idatziko litzateke (eta ez *Iznik*), hori baita jatorrizko grafia.

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Kayseri / antzinako izena: Zesarea Kapadoziakoa	Kayseri (turkiera)	Kayseri / antzinako izena: Cesarea de Capadocia	Kayseri / antzinako izena: Césarée de Cappadoce	Kayseri / antzinako izena: Caesarea Cappadociae	Turkia
Konya / antzinako izena: Iconio	Konya (turkiera) / antzinako izena: Ἰκόνιον (grekoa)	Konya / antzinako izena: Iconio	Konya / antzinako izena: Iconium	Konya / antzinako izena: Iconium	Turkia
Kura [Kura ibaia] / Mtkvari [Mtkvari ibaia]	Kura (turkiera) მტკვარი (Mtkvari) (georgiera) Kür (azerbajjanera)	Kura	Koura /antzinako izen frantsesa: Mtcouar	Kura	Turkia
Kutaisi	ქუთაისი (georgiera)	Kutaisi	Koutaïssi	Kutaisi	Georgia
Malatya / antzinako izena: Melitene	Malatya (turkiera)	Malatya / antzinako izena: Melitene	Malatya / antzinako izena: Mélitène	Malatya / antzinako izena: Melitene	Turkia
Mtskheta	მცხეთა (georgiera)	Mtskheta / Mtskheta	Mtskheta	Mtskheta	Georgia
Nakhitxevango Errepublikako Autonomoa	Naxçıvan Muxtar Respublikası (azerbajjanera)	República Autónoma de Najicheván	République autonome du Nakhitchevan	Nakhchivan Autonomous Republic	Azerbaijan

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Nur [Nur mendiak] / Amanos [Amanos mendiak]	Nur Dağları (turkiera)	Nur, montes / Amanos, montes	Amanus / Amanos, mounts	Nur Mountains / Amanus Mountains / Gâvur Mountains	Turkia
Orontes [Orontes ibaia] / Asi [Asi ibaia]	Asi Nehri (turkiera) Ορόντης (grekoa)	Orontes / Asi	Oronte	Orontes / Asi	Turkia
Otomandar Inperioa / Ate Gorena¹⁰	Osmanlı İmparatorluğu/ Osmanlı Devleti (turkiera) Bâb-ı Âli (otomandar turkiera)	Imperio otomano / Imperio turco otomano / la Sublime Puerta	Empire ottoman / la Sublime Porte	Ottoman Empire / Osmanic Empire / Osmanian Empire / Ottoman State / the Sublime Porte	Turkia
Pontoko mendiak	Kuzey Anadolu Dağları (turkiera)	Pónticos, montes / Pónticos, Alpes	chaîne pontique	Pontic Mountains	Turkia
Rustavi	რუსთავი (georgiera)	Rustavi	Roustavi	Rustavi	Georgia
Sevan [Sevan aintzira] / antzinako izena: Geghamgo itsasoa	Սևանա լիճ / antzinako izena: Գեղամա ծով (armeniera)	Seván, lago / antzinako izena: Gegham, mar de	Sevan, lac / antzinako izena: Gegham, mer de	Sevan, Lake / antzinako izena: Gegham, Sea of	Armenia

¹⁰ Berez, **Ate Gorena** otomandar gobernua izendatzeko erabiltzen zen, sultanaren jauregian kanpotarrentzat irekita zegoen ate bakarra baitzen, eta, hedaduraz, inperio osoa izendatzeko.

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Sokhumi	სოხუმი [<i>Sokhumi</i>] (georgiera) Сухум [<i>Sukhumi</i>] (errusiera) Акәа (abkhaziera)	Sujumi	Soukhoumi	Sukhumi	Georgia
Stepanakert	Ստեփանակերտ (armeniera) Xankəndi (azerbaijanera)	Stepanakert	Stepanakert / Khankendi	Stepanakert / Khankendi	Armenia
Sumqayit	Sumqayit (azerbaijanera)	Sumqayit	Sumqayit / Soumgaït	Sumqayit / Sumgait	Azerbaijan
Taurus [Taurus mendiak]	Toros Dağları (turkiera)	Tauro, montes / cordillera del Tauro	Taurus, monts	Taurus Mountains	Turkia
Tbilisi	თბილისი (georgiera)	Tiflis	Tbilissi	Tbilisi	Georgia
Trabzon / antzinako izena: Trebizonda	Trabzon (turkiera)	Trebisonda / Trapisonda	Trabzon / antzinako izena: Trébizonde	Trabzon / antzinako izenak: Trapezus / Trebizond	Turkia
Tskhinvali	ცხინვალი [<i>Tskhinvali</i>] (georgiera) Цхинвал / Чъреба [<i>Tskhinval / Txreba</i>] (osetiera)	Tsjinvali / Tsjinval	Tskhinvali / Tskhinval	Tskhinvali / Tskhinval / Chreba	Georgia

EUSKARA	JATORRIZKOA	GAZTELANIA	FRANTSESA	INGELESA	ESTATUA
Urrezko Adarra	Haliç (turkiera)	Cuerno de Oro	Corne d'Or	Golden Horn	Turkia
Van [Van aintzira]	Van Gölü (turkiera)	Van, lago	Van, lac (de)	Van, Lake	Turkia
Vanadzor / 1935 arte: Karakilisa / 1935- 1990 bitartean: Kirovakan	Վանաձոր / antzinako izena: Կիրովական (armeniera)	Vanadzor / antzinako izena: Karakilisa	Vanadzor / Vanadsor / antzinako izenak: Karakilisa, Kirovakan	Vanadzor / antzinako izenak: Karaklis, Karakilis, Karakhs, Karakilisa, Kirovakan, Korovakan, Kirowakan	Armenia
Zangezur [Zangezur mendiak]	Հանգեզուրի լեռնաշխարհ (armeniera) Zəngəzur (azerbaijanera)	Zangezur, montañas	Zanguezour	Zangezur Mountains	Armenia
Zugdidi	ზუგდიდი (georgiera)	Zugdidi	Zougdidi	Zugdidi	Georgia

GAZTELANIA-EUSKARA ZERRENDA

GAZTELANIA	EUSKARA	ESTATUA
Abjasia	Abkhazia	Georgia
Absherón / Apseronsk	Abseron ¹¹ [Abseron penintsula]	Azerbaijan
Adana	Adana	Turkia
Adjaria / Ayaria	Adjaria	Georgia
Alejandreta / Iskenderun	Iskenderun ¹² / antzinako izena: Alexandreta	Turkia
Anatolia	Anatolia	Turkia
Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora	Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora ¹³	Turkia
Antalya / antzinako izena: Adalia	Antalya / antzinako izena: Atalia	Turkia
Antitauro	Antitaurus [Antitaurus mendiak]	Turkia
Aragats, monte	Aragats [Aragats mendia]	Armenia
Ararat, monte	Ararat [Ararat mendia]	Turkia
Aras / Araks / Arax / Araxi / Araxes / Araz	Aras [Aras ibaia] / Araz [Araz ibaia] / Araxes [Araxes ibaia]	Turkia
Artashat / antzinako izena: Artaxata	Artaxat / antzinako izena: Artaxata	Armenia
Bakú	Baku	Azerbaijan
Batumi	Batumi	Georgia

¹¹ Testu espezializatuetan, *Abşeron* idatziko litzateke (eta ez *Abseron*), hori baita jatorrizko grafia.

¹² Testu espezializatuetan, *İskenderun* idatziko litzateke (eta ez *Iskenderun*), hori baita jatorrizko grafia.

¹³ Antzinako izena espezie-izenetan (*Angora ahuntz-arraza*, *Angora untxi-arraza*, *Angora katua*) eta eratorrietan (*Angora ilea*) gorde da.

GAZTELANIA	EUSKARA	ESTATUA
Bazardüzü, monte	Bazardüzü [Bazardüzü mendia]	Azerbaijan
Bursa / antzinako izenak: Prusa / Brusa	Bursa / antzinako izena: Prusa	Turkia
Cuerno de Oro	Urrezko Adarra	Turkia
Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Diyarbakır¹⁴ / Amed (kurduerazko izena) / antzinako izena: Amida	Turkia
Echmiadzin / Ejmiatsin / ofizialki: Vagharshapat	Ejmiatsin / ofizialki: Vagharxapat	Armenia
Ereván	Erevan	Armenia
Esmirna	Esmirna / Izmir¹⁵ Oharra: testuinguru historikoetan Esmirna da aukera bakarra	Turkia
Estambul / antzinako izenak: Constantinopla / Bizancio	Istanbul / antzinako izenak: Konstantinopla / Bizantzio	Turkia
Gallípoli/Galípoli	Gallipoli	Turkia
Ganyá / 1826-1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Ganca¹⁶ / 1826-1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Azerbaijan
Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Turkia
Gori	Gori	Georgia
Gyumri / antzinako izena: Koumari	Giumri¹⁷ / antzinako izena: Kumairi / 1840-	Armenia

¹⁴ Testu espezializatuetan, *Diyarbakır* idatziko litzateke (eta ez *Diyarbakir*), hori baita jatorrizko grafia.

¹⁵ Testu espezializatuetan, *Izmir* idatziko litzateke (eta ez *Izmiri*), hori baita jatorrizko grafia.

¹⁶ <c> grafema euskarazko <z> bezala ahoskatzen da: *Gantza*. Testu espezializatuetan, *Gance* idatziko litzateke (eta ez *Ganca*), hori baita jatorrizko grafia.

GAZTELANIA	EUSKARA	ESTATUA
	1924 bitartean: Alexandropol / 1924-1990 bitartean: Leninakan	
Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Armenia
Imperio otomano / Imperio turco otomano / la Sublime Puerta	Otomandar Inperioa / Ate Gorena ¹⁸	Turkia
Kars	Kars	Turkia
Kayseri / antzinako izena: Cesarea de Capadocia	Kayseri / antzinako izena: Zesarea Kapadoziakoa	Turkia
Konya / antzinako izena: Iconio	Konya / antzinako izena: Ikonio	Turkia
Kura	Kura [Kura ibaia] / Mtkvari [Mtkvari ibaia]	Turkia
Kutaisi	Kutaisi	Georgia
Malatya / antzinako izena: Melitene	Malatya / antzinako izena: Melitene	Turkia
Miskheta / Mtskheta	Mtskheta	Georgia
Nagorno Karabaj / Alto Karabaj	Karabakh Garaia	Armenia
Nicea	Iznik ¹⁹ / antzinako izena: Nizea	Turkia
Nur, montes / Amanos, montes	Nur [Nur mendiak] / Amanos [Amanos mendiak]	Turkia
Orontes / Asi	Orontes [Orontes ibaia] / Asi [Asi ibaia]	Turkia
Osetia del Sur	Hego Osetia	Georgia

¹⁷ <iu> diptongo gisa ahoskatzekoa da.

¹⁸ Berez, **Ate Gorena** otomandar gobernuaren izendatzeko erabiltzen zen, sultanaren jauregian kanpotarrentzat irekita zegoen ate bakarra baitzen, eta, hedaturaz, inperio osoa izendatzeko.

¹⁹ Testu espezializatuetan, *Iznik* idatziko litzateke (eta ez *Iznik*), hori baita jatorrizko grafia.

GAZTELANIA	EUSKARA	ESTATUA
Pónticos, montes / Pónticos, Alpes	Pontoko mendiak	Turkia
República Autónoma de Najicheván	Nakhitxevango Errepublikak Autonomoa	Azerbaijan
Rustavi	Rustavi	Georgia
Seván, lago / antzinako izena: Gegham, mar de	Sevan [Sevan aintzira] / antzinako izena: Geghamgo itsasoa	Armenia
Stepanakert	Stepanakert	Armenia
Sujumi	Sokhumi	Georgia
Sumqayit	Sumqayit	Azerbaijan
Tauro, montes / cordillera del Tauro	Taurus [Taurus mendiak]	Turkia
Tiflis	Tbilisi	Georgia
Trebisonda / Trapisonda	Trabzon / antzinako izena: Trebizonda	Turkia
Tsjinvali / Tsjinval	Tskhinvali	Georgia
Van, lago	Van [Van aintzira]	Turkia
Vanadzor / antzinako izena: Karakilisa	Vanadzor / 1935 arte: Karakilisa / 1935-1990 bitartean: Kirovakan	Armenia
Zangezur, montañas	Zangezur [Zangezur mendiak]	Armenia
Zugdidi	Zugdidi	Georgia

FRANTSESA-EUSKARA ZERRENDA

FRANTSESA	EUSKARA	ESTATUA
Abkhazie	Abkhazia	Georgia
Abşeron / Apchéron	Abseron ²⁰ [Abseron penintsula]	Azerbaijan
Adana	Adana	Turkia
Adjarie (République autonome d'Adjarie)	Adjaria	Georgia
Alexandrette	Iskenderun ²¹ / antzinako izena: Alexandreta	Turkia
Amanus / Amanos, mounts	Nur [Nur mendiak] / Amanos [Amanos mendiak]	Turkia
Anatolie	Anatolia	Turkia
Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora	Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora ²²	Turkia
Antalya / antzinako izena: Adalya/Adalia	Antalya / antzinako izena: Atalia	Turkia
Anti-Taurus	Antitaurus [Antitaurus mendiak]	Turkia
Aragats, mont	Aragats [Aragats mendia]	Armenia
Ararat, mont	Ararat [Ararat mendia]	Turkia
Araxe / Aras / Araks / Arax / Araxes / Araz	Aras [Aras ibaia] / Araz [Araz ibaia] / Araxes [Araxes ibaia]	Turkia
Artashat / Ardachat/ antzinako izena: Artaxate	Artaxat / antzinako izena: Artaxata	Armenia

²⁰ Testu espezializatuetan, *Abşeron* idatziko litzateke (eta ez *Abseron*), hori baita jatorrizko grafia.

²¹ Testu espezializatuetan, *İskenderun* idatziko litzateke (eta ez *Iskenderun*), hori baita jatorrizko grafia.

²² Antzinako izena espezie-izenetan (*Angora ahuntz-arraza*, *Angora untxi-arraza*, *Angora katua*) eta eratorrietan (*Angora ilea*) gorde da.

FRANTSESA	EUSKARA	ESTATUA
Bakou	Baku	Azerbaijan
Batoumi	Batumi	Georgia
Bazardüzü, mont	Bazardüzü [Bazardüzü mendia]	Azerbaijan
Bursa / antzinako izenak: Pruse / Brousse	Bursa / antzinako izena: Prusa	Turkia
chaîne pontique	Pontoko mendiak	Turkia
Corne d'Or	Urrezko Adarra	Turkia
Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Diyarbakır²³ / Amed (kurdueرازko izena) / antzinako izena: Amida	Turkia
Empire ottoman / la Sublime Porte	Otomandar Inperioa / Ate Gorena²⁴	Turkia
Erevan / Yerevan	Erevan	Armenia
Etchmiadzin / ofizialki: Vagharchapat	Ejmiatsin / ofizialki: Vagharxapat	Armenia
Gallipoli	Gallipoli	Turkia
Gandja / 1826-1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Ganca²⁵ / 1826-1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Azerbaijan
Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Turkia
Gori	Gori	Georgia

²³ Testu espezializatuetan, *Diyarbakır* idatziko litzateke (eta ez *Diyarbakir*), hori baita jatorrizko grafia.

²⁴ Berez, **Ate Gorena** otomandar gobernua izendatzeko erabiltzen zen, sultanaren jauregian kanpotarrentzat irekita zegoen ate bakarra baitzen, eta, hedaduraz, inperio osoa izendatzeko.

²⁵ <c> grafema euskarazko <t> bezala ahoskatzen da: *Gantza*. Testu espezializatuetan, *Gance* idatziko litzateke (eta ez *Ganca*), hori baita jatorrizko grafia.

FRANTSESA	EUSKARA	ESTATUA
Gyumri ou Gumri / antzinako izena: Kumaïri	Giumri ²⁶ / antzinako izena: Kumairi / 1840-1924 bitartean: Alexandropol / 1924-1990 bitartean: Leninakan	Armenia
Haut-Karabagh / Haut-Karabakh	Karabakh Garaia	Armenia
Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Armenia
Istanbul/ Istamboul / antzinako izenak: Constantinople / Byzance	Istanbul / antzinako izenak: Konstantinopla / Bizantzio	Turkia
Izmir / antzinako izena: Smyrne	Esmirna / Izmir ²⁷ Oharra: testuinguru historikoetan Esmirna da aukera bakarra	Turkia
Kars	Kars	Turkia
Kayseri / antzinako izena: Césarée de Cappadoce	Kayseri / antzinako izena: Zesarea Kapadoziakoa	Turkia
Konya / antzinako izena: Iconium	Konya / antzinako izena: Ikonio	Turkia
Koura /antzinako izen frantsesa: Mtcouar	Kura [Kura ibaia] / Mtkvari [Mtkvari ibaia]	Turkia
Koutaïssi	Kutaisi	Georgia
Malatya / antzinako izena: Mélitène	Malatya / antzinako izena: Melitene	Turkia
Mtskheta	Mtskheta	Georgia
Nicée	Iznik ²⁸ / antzinako izena: Nizea	Turkia
Oronte	Orontes [Orontes ibaia] / Asi [Asi ibaia]	Turkia

²⁶ <iu> diptongo gisa ahoskatzekoa da.

²⁷ Testu espezializatuetan, *İzmir* idatziko litzateke (eta ez *Izmir*), hori baita jatorrizko grafia.

²⁸ Testu espezializatuetan, *İznik* idatziko litzateke (eta ez *Iznik*), hori baita jatorrizko grafia.

FRANTSESA	EUSKARA	ESTATUA
Ossétie du Sud	Hego Osetia	Georgia
République autonome du Nakhitchevan	Nakhitxevango Errepublikak Autonomoa	Azerbaijan
Roustavi	Rustavi	Georgia
Sevan, lac / antzinako izena: Gegham, mer de	Sevan [Sevan aintzira] / antzinako izena: Geghamgo itsasoa	Armenia
Soukhoumi	Sokhumi	Georgia
Stepanakert / Khankendi	Stepanakert	Armenia
Sumqayit / Soumgaït	Sumqayit	Azerbaijan
Taurus, monts	Taurus [Taurus mendiak]	Turkia
Tbilissi	Tbilisi	Georgia
Trabzon / antzinako izena: Trébizonde	Trabzon / antzinako izena: Trebizonda	Turkia
Tskhinvali / Tskhinval	Tskhinvali	Georgia
Van, lac (de)	Van [Van aintzira]	Turkia
Vanadzor / Vanadsor / antzinako izenak: Karakilisa, Kirovakan	Vanadzor / 1935 arte: Karakilisa / 1935-1990 bitartean: Kirovakan	Armenia
Zanguezour	Zangezour [Zangezour mendiak]	Armenia
Zougdidi	Zugdidi	Georgia

INGELESA-EUSKARA ZERRENDA

INGELESA	EUSKARA	ESTATUA
Abkhazia	Abkhazia	Georgia
Absheron	Abseron ²⁹ [Abseron penintsula]	Azerbaijan
Adana	Adana	Turkia
Adjara (Autonomous Republic of Adjara)	Adjaria	Georgia
Anatolia	Anatolia	Turkia
Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora	Ankara / 1073-1930 bitartean: Angora ³⁰	Turkia
Antalya /antzinako izena: Attalia	Antalya / antzinako izena: Atalia	Turkia
Anti-Taurus	Antitaurus [Antitaurus mendiak]	Turkia
Aragats, Mount	Aragats [Aragats mendia]	Armenia
Ararat, Mount	Ararat [Ararat mendia]	Turkia
Aras / Araks / Arax / Araxi / Araxes / Araz / Yeraskh	Aras [Aras ibaia] / Araz [Araz ibaia] / Araxes [Araxes ibaia]	Turkia
Artashat / antzinako izena: Artaxata	Artaxat / antzinako izena: Artaxata	Armenia
Baku	Baku	Azerbaijan
Batumi	Batumi	Georgia
Bazardüzü, Mount	Bazardüzü [Bazardüzü mendia]	Azerbaijan
Bursa/ antzinako izena: Prusa	Bursa / antzinako izena: Prusa	Turkia
Diyarbakır / antzinako izena: Amida	Diyarbakır ³¹ / Amed (kurduerazko izena) / antzinako izena: Amida	Turkia

²⁹ Testu espezializatuetan, *Abşeron* idatziko litzateke (eta ez *Abseron*), hori baita jatorrizko grafia.

³⁰ Antzinako izena espezie-izenetan (*Angora ahuntz-arraza*, *Angora untxi-arraza*, *Angora katua*) eta eratorrietan (*Angora ilea*) gorde da.

³¹ Testu espezializatuetan, *Diyarbakır* idatziko litzateke (eta ez *Diyarbakir*), hori baita jatorrizko grafia.

INGELESA	EUSKARA	ESTATUA
Ejmiatsin / Echmiatsin / Echmiadzin / ofizialki: Vagharshapat	Ejmiatsin / ofizialki: Vagharxapat	Armenia
Gallipoli	Gallipoli	Turkia
Ganja / 1826-1917 bitartean: Yelizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Ganca ³² / 1826-1917 bitartean: Elizavetpol / 1935-1991 bitartean: Kirovabad	Azerbaijan
Gaziantep / antzinako izena: Antep	Gaziantep / antzinako izena: Antep	Turkia
Golden Horn	Urrezko Adarra	Turkia
Gori	Gori	Georgia
Gyumri / antzinako izena: Kumayri	Giumri ³³ / antzinako izena: Kumairi / 1840- 1924 bitartean: Alexandropol / 1924-1990 bitartean: Leninakan	Armenia
Hrazdan / Razdan / 1930-59 bitartean: Akhta, Akhti, Akhtala	Hrazdan / 1930-59 bitartean: Akhta	Armenia
İskenderun / antzinako izena: Alexandretta	İskenderun ³⁴ / antzinako izena: Alexandreta	Turkia
Istanbul / antzinako izenak: Constantinople / Byzantium	Istanbul / antzinako izenak: Konstantinopla / Bizantzio	Turkia
Izmir / antzinako izena: Smyrna	Esmirna / Izmir ³⁵ Oharra: testuinguru historikoetan Esmirna da aukera bakarra	Turkia
İznik / antzinako izena: Nicaea	Iznik ³⁶ / antzinako izena: Nizea	Turkia
Kars	Kars	Turkia
Kayseri / antzinako izena: Caesarea Cappadociae	Kayseri / antzinako izena: Zesarea Kapadoziakoa	Turkia

³² <c> grafema euskarazko <tz> bezala ahoskatzen da: *Gantza*. Testu espezializatuetan, *Gancə* idatziko litzateke (eta ez *Ganca*), hori baita jatorrizko grafia.

³³ <iu> diptongo gisa ahoskatzekoa da.

³⁴ Testu espezializatuetan, *İskenderun* idatziko litzateke (eta ez *Iskenderun*), hori baita jatorrizko grafia.

³⁵ Testu espezializatuetan, *İzmir* idatziko litzateke (eta ez *Izmir*), hori baita jatorrizko grafia.

³⁶ Testu espezializatuetan, *İznik* idatziko litzateke (eta ez *Iznik*), hori baita jatorrizko grafia.

INGELESA	EUSKARA	ESTATUA
Konya / antzinako izena: Iconium	Konya / antzinako izena: Ikonio	Turkia
Kura	Kura [Kura ibaia] / Mtkvari [Mtkvari ibaia]	Turkia
Kutaisi	Kutaisi	Georgia
Malatya / antzinako izena: Melitene	Malatya / antzinako izena: Melitene	Turkia
Mtskheta	Mtskheta	Georgia
Nagorno-Karabakh	Karabakh Garaia	Armenia
Nakhchivan Autonomous Republic	Nakhitxevango Errepublika Autonomoa	Azerbaijan
Nur Mountains / Amanus Mountains / Gâvur Mountains	Nur [Nur mendiak] / Amanos [Amanos mendiak]	Turkia
Orontes / Asi	Orontes [Orontes ibaia] / Asi [Asi ibaia]	Turkia
Ottoman Empire / Osmanic Empire / Osmanian Empire / Ottoman State / the Sublime Porte	Otomandar Inperioa / Ate Gorena³⁷	Turkia
Pontic Mountains	Pontoko mendiak	Turkia
Rustavi	Rustavi	Georgia
Sevan, Lake / antzinako izena: Gegham, Sea of	Sevan [Sevan aintzira] / antzinako izena: Geghamgo itsasoa	Armenia
South Ossetia / Tskhinvali Region	Hego Osetia	Georgia
Stepanakert / Khankendi	Stepanakert	Armenia
Sukhumi	Sokhumi	Georgia
Sumqayıt / Sumgait	Sumqayıt	Azerbaijan
Taurus Mountains	Taurus [Taurus mendiak]	Turkia
Tbilisi	Tbilisi	Georgia

³⁷ Berez, **Ate Gorena** otomandar gobernua izendatzeko erabiltzen zen, sultanaren jauregian kanpotarrentzat irekita zegoen ate bakarra baitzen, eta, hedaturaz, inperio osoa izendatzeko.

INGELESA	EUSKARA	ESTATUA
Trabzon / antzinako izenak: Trapezus / Trebizond	Trabzon / antzinako izena: Trebizonda	Turkia
Tskhinvali / Tskhinval / Chreba	Tskhinvali	Georgia
Van, Lake	Van [Van aintzira]	Turkia
Vanadzor / antzinako izenak: Karaklis, Karakilis, Karakhs, Karakilisa, Kirovakan, Korovakan, Kirowakan	Vanadzor / 1935 arte: Karakilisa / 1935-1990 bitartean: Kirovakan	Armenia
Yerevan	Erevan	Armenia
Zangezur Mountains	Zangezur [Zangezur mendiak]	Armenia
Zugdidi	Zugdidi	Georgia